

Maite Idirin kantariaren
ahotsaren gordina

2015eko uztaila
1. zenbakia

DANTZA
Gorputzak hitza hartzen
duenean

Euskal Herriko
Kulturaren

Txinparta

“Emakumeon historia
kontatu nahi nuke”
AITZIBER GARMENDIA
antzezlea

Argazkia: Gaizka Iroz

Gorputzak hitza hartzen duenean

Patroi erritmikoei jarraiki arima askatu, eta gorputzak hartzen du hitza. Gorputzak hitza hartzen duenean, asko du esateko. Munduaz mintzo daiteke, naturaz, kulturaz, euskaraz, ausardiaz ... Gorputzak hitza hartzen duenean, sormena dario. Gorputzak hitza hartzen duenean isiltzen dira ezpainak.

Dantzak bizi – bizi dirau euskal kulturaren baitan, kultura zabalteko beste hizkuntza bat izaki. Patxi Laborda Larrea (Iruñea, 1967) dantza irakasle eta koreografoaren hitzetan, bereizle markak bilatzen ditu euskal dantzak, nortasunari eusteko defentsan: “Teknikoki ez dago ezberdintasunik euskal dantza eta gainontzeko dantzen artean. Jota Iberiar Penintsula osoan dantzatzen da, eta guk egindako dantza urrats berberak egiten dituzte. Ñabardurek ezberdintzen gaituzte, eta identitatea markatzen duten ñabardura horiek azpimarratzen dira egun. Juan Antonio Quijera Perez idazleak honakoa esaten zuen: ‘Garai batean ezberdinak ginelako, ezberdin dantzatzen genuen. Eta orain ezberdin dantzatzen dugu, ezberdinak izateko’ ”.

Labordak mutil koxkorra zenetik egiten zuen dantzan erromeriatan. Gorputza astintzeko premiak baino, dantza ikertzeko nahiak eraman zuen Iruñeko *Duguna* eta *Ortzadar* dantza taldeak gertutik ezagutzera. Euskal dantzekin aski ez, eta balleta ikasteari ekin zion Gasteizko kontserbatorioan. Geroa, Salvador Taborak zuzendutako *Pasionaria ¡No pasarán!* obran parte hartu zuen, dantza garai-kideak European barrena eraman zuelarik.

Duela hamarkada bat *Bilbao Musika Eskolan* irakasle hasi zenean, musika eta dantzaren arteko

ezkontzan sakondu zuen. Orduan bilakatu zen dantzari musikaria edo musikari dantzaria. “Garai batean teknika ikasten ari nintzela pentsatzen nuen. Denborarekin, dantza ikusteko modu asko ikasi ditudala konturatu naiz. Dantza taldeetan esaterako, ikuskizuna da galbahea, eta horretarako batasuna eta hezkuntza dira ardatz. Nik ordea, askatasuna maite dut eta plaza askea da”, aitortu du iruñearrak.

“Jota Iberiar Penintsula osoan dantzatzen da, eta guk egindako dantza urrats berberak egiten dituzte”

PATXI LABORDA

Dantza irakasle eta koreografoa

Postre bat ahoan urtzearen pareko zirrara sortzen dio “mutil dantza” egiteak Labordari. Baina are gehiago gozatzen du jotaren erritmoan, inprobisazioak tarte handia hartzen duelako: “Jota baten bidez, borrokan egin dezaket, sentsuala

izan daiteke, barrezka bukatu ... Izan ere, txortan egitea bezalakoa da dantzan egitea. Bikoteak baka-rrik daki ongi edo gaizki egiten ari den. Baina film pornoetan bezala, honetan ere artistak daude”.

Aspaldiko ohiturak berregiten dituen *AIKO* musika taldeko kide da Laborda. Euren proiektuak hiru oin ditu: musikari eta dantzarien arteko dibortzioa konpontzea, euskal dantza birdefinitzea, eta pedagogia astintzea: “XX. mende bukaeraren elizaren pentsamoldeak euskal dantza baldintzatu zuen, soka - dantza, fandangoa eta arin - arina euskal dantza izendatuz. Pasodoblea, mazurka eta polka dantza lotuak ordea, ez zituzten euskal dantzatzat hartu. Jendeak ordea, dantza lotua zuen nahiago, eta erromeriak bertan behera joan ziren. Orduan, dantza taldeek hartu zuten lekukoa, euren errepertorioa eta dantzakera ezarriz. Gu askatasun izpiritua aldarrikatzen saiatzen gara, dantzak irakatsi baino, dantzan irakatsiz”.



Laborda txistu eta danbolinari eusten. Argazkia: Leire Elustondo



Etxebarrieta, flamenkoaren erritmoan dantzan.
Argazkia: Gaztezulo

Bi orduko tailer ibiltariak, asteburu bateko ikastaroak eta dantza ikastaro egonkorak antolatzen dituzte AIKOn dantzaren gaineko ezagutzaririk ez duenarentzat. Horretarako hutsetik hasten dira, dantzaren egitura erritmikoa irakatsiz. Ondoren, melodia aintzat hartuz, espazioan kokatzen dute erritmoa, eta azkenik apaindurak eranstean dizkiote aurretik barneraturiko guztiari. “Irakasle moduan inprobisazioa lantzen saiatzen naiz. Kontua da dantza gizarte baten isla dela, eta gurean askatasuna aldarrikatu, aldarrikatzen da. Baina norbaitek zer egin behar dugun esaten baldin badigu, askoz hobe”, gaineratu du iruñearrak.

Ikasitakoa oholtzaratzeko aitzakiaz, erromeriak antolatzen dituzte hilean behin Bilboko Erriberako Merkatuan, Durangoko Plateruenan eta Ondarroako Bekoizi Antzokian. Erromeriaren funtzio soziala berreskuratzen dute horrela, xede ezberdinez jantzitako harremana ei delako dantzaren helburua.

Takoi - hotsen oihartzuna

Fandangoaren erritmoan flamenkoa dantzatu daitekeela erakusten dute Askoa Etxebarrieta Lasheraren (Gasteiz, 1976) takoi hotsek. Dantza eta perkusioaren arteko nahasketa, bizitzaren mui-

na, edo enamoraturik duen maitalea da flamenkoa Etxebarrietaren hitzetan.

Bat - bateko jarduna du maite, bat - batekotasunean antzematen delako dantzari baten neurria. Aurrez prestatutako dantzek ere ateratzen diote irribarrerik, baita barruko penarik ere. Sentimenduz dantzatzen du *seguidilla*, poztasunez *alegría*, eta festa giroan *bulería*.

Carmen Amaya flamenko dantzaria da haren jainko txikia, aitzindaria izan baitzen gizonezkoen ohiturak bere egiten. Amaya aurreneko emakumea izan zen takoi – hotsa ateratzen. Aurrenekoa ere dantzatzerako orduan soinekoa alboratu eta prakak janzten.

Urduria eta txikia izaki, “La Pulga” (Arkakuso) ezizena jarri zion lagun batek. Oholtza gaina zapaltzean aitzitik, izen bilakatzen da aurrez ezizen izandakoa. Eguna eta gauaren parekoak dira “La Pulga” eta Askoa, biak ala biak pertsona beraren baitan bizi arren: “Dantzatzerakoan paperean sartu, eta transformatu egiten naiz. Nire momentua da. Harrokeriarekin sartzen naiz taula gainera, ni harroa ez baldin banaiz ere”.

Hamar urte zituela, Gasteizko Guridi eskolan hasi zuen dantza ibilbidea. Ondotik, ballet ikastaroa egin zuen Bilbon Solange Leforteren gidaritzapean. Eta azkenik, Victor Ullate ballet dantzariaren aginduak bete zituen Madrilén. Hamabost urte zituenean, gorputza astintzeari utzi zion, zaletasun berriei bidea emanez: “Zortzi urtez bateria jo nuen, eta talde punki bat sortzeko asmotan ibili ginen arren, ez genuen ezer egin”.

Perkusioa ikasteko asmoak eraman zuen Gasteizko Zaramazulo lokal okupatuetara, baina flamenko

ikastaroak erakarri eta dantzarako gosea berpiztu zitzaion. Udara horretan, flamenkoaren esentzia dastatu nahian, Granadara abiatu zen ikastaro trinkoak egiteko. Zortzi urtez luzatu zitzaion Andaluziako egonaldia, lau urte Granadan eta beste horrenbeste Sevillan pasa zuelarik: “La Presi, Luis de Luis, Esther Marin, Farruquito, Farruca, Juan de los Reyes eta Isabel Balon izan ditut irakasle. Eurekin ikasitakoa etxeko patioan jartzen genuen praktikan. Hura zen gure plaza. Dantzatzen ikusten nindutenean, ez zekiten euskalduna nintzenik, ijitoa ote nintzen galdetzen zidaten”. Andaluziatik bueltatzean, Europako hamaika txokotara hedatu zuen takoi hotsen oihartzuna.

Taula gaina ez ezik, karrika baliatu zuen topikoak astindu eta ijitoen ondarea han eta hemen aldarrikatzeko. Etxebarrietaren esanetan geroz eta harrera hobea du flamenkoak Euskal Herrian, garai bateko kateetatik askatzen ari den ikur: “Francok flamenkoa eta zezenak Espainiaren folklore gisa saldu zituen, flamenkoa ijito eta andaluziarren kontua bazen ere. Euskal Herrian bizi zen egoera tarteko, euskal herritarrek flamenkoarekiko distantzia hartu zuten. Urteen poderioz ordea, Camaron, Pata Negra eta Kiko Venenok atea ireki zioten gurean flamenkoari”.

Chua Alba dantzariak hasitako bideari jarraituz, bost urte dramataza *Berriketan* proiektua hedatzen. Granadako dantzaria lehena izan zen txalaparta eta flamenkoa uztartzen. Gasteiztarrak aldiz, sakonago landu gura du konbinazio hori. Gitarra jotzaile, perkusioigile, abeslari eta dantzari osaturiko flamenko tradizionalak ere lekuri du Etxebarrietaren agendan, *La Pulga eta lagunak* lelopean Euskal Herrian barna eginez.

Gorpuztutako jazz

Duela hamarkada bat baino gehiago, itsasoaren bestaldetik iritsi zen lindy hopa Euskal Herrira. Ana Minguez Bazan (Donostia, 1967) da haren enbaxadorea gurean, buru belarri baitabil swing-aren erroa irakasten.

Dantza alaia, sortzailea eta soziala da lindy hopa, zeinean elkarre-ragina den jaun eta jabe: “Aurrez dantza garaikidea dantzatu dut, eta ez nion hankarik ez bururik ikusten dantza eta musika bat ez zihoa-zelako. Irakasleak dantzaria beste elementu bat zela esaten zidan, baina ez nuen ulertzen. Lindy hopean aldiz, musika interpretatzen da. ‘Leaderrak’ dantza egiten du eta ‘followerrak’ erantzuten dio”.

“Aurrez dantza garaikidea dantzatu dut, eta ez nion hankarik ez bururik ikusten dantza eta musika bat ez zihoa-zelako”

ANA MINGUEZ

Dantza irakasle eta dantzaria

Lehiaketek diziplinari neurria ematen dioten arren, Minguezek ez ditu norgehiagokak maite dantzaren helburu soziala itzalean geratzen delako. Hala ere, txapelketa bat edo beste egin izan duen aldira aurreneko seien artean izan da.

80ko hamarkadaren bukaeran deskubritu zuen Minguezek lindy hopa, Frantziako Champigny-sur-Marne udalerrian frantsesa ikasten ari zela. Geroztik dantza amerikarra menderatu arte ezin izan du lorik hartu, bakean bizi: “Nire kontu ikasten hasi nintzen bideo batzuk oinarri harturik. Ondoren, ikastaro eta jaialdi ezberdinetara joaten hasi nintzen Bartzelonan, Londresen, Suedian, Okzitaniako Tolosan ... Ikasten ari nintzela, Donostiako Kandela tabernako jabeek eurenean salsa eta lindy

hopa irakastea eskaini, eta nekien apurra partekatzeraz animatu ninduten. Hemen aurrez lindy hop ikastaroa izan balitz, ez nintzatekeen irakasle izango, nik dantzatzea besterik ez nuelako nahi”. Hasierako urteetan idazkari lanekin uztartzen zuen dantza irakaskuntza. Denboraren joanean aitzitik, lana utzi eta ofizio egin zuen zaletasuna.

New Yorkeko Savoy dantzalekuan gorpuztu zen lindy hopa 20ko hamarkadan, *charlestone*, *black bottom*, *cakewalk*, eta *Texas Tommy* estiloen zenbait elementu bere egin ondotik. Dirudienez, George “Shorty” Snowden lehen belaunaldiko dantzariak jarri zion lindy hop izena, Charles Lindbergh ozeano atlantikoa zeharkatu zuen aurreneko hegazkin gidariaren omenez. “Komunitate afroamerikarrak ekin zion lindy-a dantzazeari. Urteen poderioz modan jarri zen, Life aldizkariak 1943an nazio – dantza izendatzeraino. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, rock and rolla sartzearekin batera, ahanzturan geratzeko zorian izan zen. Baina 80ko hamarkadan suediar batzuek batetik, eta amerikar batzuek bestetik, Frankie Manning lindy hoparen aita aurkitu zuten”, gaineratu du dantzariak.

“Shorty” Snowden eta Big Bea izan zituen Manningek eredu lindy hopa dantzatzen hasi zenean.



Ana Minguez Donostiako Easo plazan.
Argazkia: Leire Elustondo

1935ean aldiz, atzean utzi zituen lindy hopper aitzindariak, Frieda Washington bizkarrean hartu eta lehen jasoaldia egin orduko.

XXI. mendea esnatzearekin batera ezagutu zuen Minguezek dantza frenetikoaren aita zena. Manningek 86 urte zituen sasoi hartan. Bastoiaren laguntzaz eusten zion zutik, dantzarako ordea, ez zuen makuluen beharrik: “Frankie Manningekin dantza ikastaroak egin nituen Bartzelonan eta Montpellieren. Eta gerora bere dantza bikotea izan nintzen Parisen 2008an. Hurrengo urtean Judy Pritchett-ek, Manningen andreak, deitu zidan 95. urtebetetze ospakizunera gonbidatuz. Urtebetetzerako hilabete eta egun bat falta zela hil egin zen Manning, eta ikaragarritzko omenaldia egin zioten”.

Sei urte dira Manningek azken arnasa eman zuenetik. Dena egin da utzi bazuen ere, dena sortzeko dago dantzan bere burua aurkitu gura duenarentzat.

Hiruak bat

Dantzatzeko hiru molde ezberdin izan arren, uztarri berekoak dira euskal dantza, flamenkoa eta lindy hopa. Izan ere, hirurek dute musika oinarri. Hirurek dute inprobisaziotik. Hirurek dute gorputzarekin komunikatzeko premia, sozializazio erreminta bana izaki.

Telmo Irureta Uria · Zinema zuzendaria, antzezlea eta gidoilaria

Originaltasuna lehenbizi, umorea hurrena

Bi urte zituela, zeharo aldatu zitzaion bizitza Telmo Irureta Uriari (Zumaia, 1989); entzefalitiak garun – paralisia eragin baitzion. Gurpildun aulkiari lotua bizi da ordutik, hari itsatsita egon barik. Behar berezia duten umeak laguntzeko oposaketak prestatzen, aktore ofizioa ikasten, eta “De agua y arena” film autobiografikoa zuzentzen baitabil, geldiezin.



Telmo Irureta eta Leire Elustondo mahaiaren bueltan.
Argazkia: La Vaca taberna

- **Elena Iruretaren iloba izaki, antzerki mundua gertu izango zenuen gazte - gaztetatik ...**

Txikitan antzezlanak egiten genituen elkarrekin, eta familiaren aurrean erakutsi. Harekin egin nuen *Miren y su perrito*; nire aurreneko obra, duela hamar urte. Ondorengo lanetan ere nire izekok lagundu nau.

- **Hiru film labur eginak dituzu jada. Lepoño (2013) lanean ezinbestekoa da musika. Pisukideak-en (2013) ordea, antzezpena da jaun eta jabe.**

Lepoño grabatzen genbiltzanean, Titanic kanta bakarrik nuen buruan. Gerora sartu nituen beste denak. *Pisukideak*-en agertzen diren antzezleak ez dira edozein. Elena Irureta, Aitziber Garmendia eta Esther Uria aktoreak dira ofizioz. Arantza Uria - nire izeko-eta Irene Gutierrez - nire lehengusina - profesionalak ez diren arren, oso ondo egiten dute.

- **Hurrengo lanean zure buruaren berri emango duzu. Zerbait aurreratzerik bada?**

Gidoiari azken zertzeladak eman behar dizkiodan arren, gehiena grabatuta dugu. 60 bat minutuko pelikula eleanitza izango da. Erdia euskaraz, erdia erdaraz, eta ingeleseko eskola bat izango duena. Bi ataletan banatuta egongo da, Telmo gaixotu aurrenekoa, eta Telmo gaixotu ondorengoa.

- **Terapia gisa hartzen duzu?**

Noski. Ezgaitasuna kanpotik eta barrutik islatu nahi dut, aurreiritziak uxatzeko.

- **Aspaldiko lagun bat ere buru belarri omen dabil zurekin lanean ...**

Irakasle – ikasketak egiten nenbilela ezagutu nuen Maitena Illarramendi, eta apurka - apurka zaletasunak batu gintuen. Nik bezain - beste lan egin duenez, nire proiektua izatetik, biona izatera pasa da.

- **Zuk zeuk egingo al duzu Telmo Iruretarena?**

Lau Telmo ezberdin daude pelikulan. Bata Telmo txikitan, nire lehengusu baten semerik txikienak interpretatua. Bigarrena Cleo, komikietako Teoren tanke-rako neska ezgaitua. Ondoren Telmo gaur egun, nik neuk antzeztua. Eta azkenik, gaixotasunik gabeko Telmoren barneko ahotsa.

- **Zer - nolako zuzendaria zara?**

Zorrotza. Edizioan aukera ezberdinak izatea gustatzen zaidanez, ez naiz hartualdi on batekin konformatzen. Bi hartualdi on edukita hobe! Baina aktoreentzako ez da lana, mesede bat baizik, orduan ezin dut horrenbeste exijitu.

- **Zuzendaria, antzezlea eta gidoilaria izaki, zerk betetzen zaitu gehien?**

Denak du bere xarma, eta bere alde txarra. Polita da nik idatzitako zerbait besteen ahotan entzutea. Taula gainean nagoenean, publikoa hor dagoela ikustea ere ondo dago. Baina, lasaiago nago antzeztu behar ez dudanean, ezin dudalako nire burua kanpotik ikusi.

- **Egia al da urteak birritan ospatzen dituzula?**

Bai, bi aldiz jaio nintzelako. Urtarrilaren zortzian jaio nintzen, eta bi urteren ondoren, uztailaren 30ean jaio nintzen berriz ere.

- **Zuzendari handien pare ikusiko zaitugu etorkizunean?**

Etorkizun sortzailea nahiko nuke. Zuzendari hitza potoloegia iruditzen zait. Momentuan ez dut uste zinema egiten dudarik, modu ez profesionalean aritzen naizelako. Oraindik txiki sentitzen naiz, ikaste prozesuan nagoela esango nuke.



Maite Idirin abesten.
Argazkia: Badok.info

Eztizko ahotsaren gordina

Mugaz gaindiko euskalduna da Maite Idirin Solatxi. Bizkaitarra sortzez, lapurtarra bizimoduz. Ugaoko Zeberio auzoan jaio zen, 1943ko uztailaren 12an. Luis Arana Goirik, Sabino Aranaren anaiak, diseinaturiko baserrian eman zuen mende laurden.

Eta ondoren, arrazoi politikoak tartean, Ipar Euskal Herrian egokitu behar izan zuen. Gaur gaurkoz, euskal eremu bien artean zatituta du bihotza. Biak ditu maite, biak ditu bere. Ipar Euskal Herrian igarotzen ditu lan egunak, Hego Euskal Herrian asteburuak.

Txiki txikitatik musika izan du bidelagun. Kantuz liluratzuten zituen behiak euren zainketaz arduratzen zenean. Kantuak eraman zuen Elizako abesbatzan kantatzera. Borondatez baino, behartuta kantatzen zituen eskolan Francoren aldeko abestiak. Arrotza zuen otsoaren ulua: “Bakoitzak barnean gordetzen zuen sentitzen zuen hori. Inork ez zuen agertzen. Auzoan faxistak eta errege zaleak zeuden, baina ez ziren gaiztoak. Gu ordea, abertzaleak ginen. Gure aita Gorbeian izan zen gudarri, harrapatu, Madrilera eraman, eta hiru urtez izan zuten preso”.

Etorki euskal dantza taldeari esker agertu eta garatu zuen sentimendu politikoa. Musikaren erritmoan gorputza astintzearekin batera, mugaz gaindiko herri baten nortasunaz jabetu zen: “Dantza taldeko irakasleak abertzaletu gintuen. Aberri egunetara eta euskal jaietara joaten hasi ginen. Gogoan dut Urbian (Gipuzkoa) ikurrina atera zutenean, edo poliziak Gasteiz mendean hartu zuenean”.

Inazio Sagardui apaizaren gidaritzapean barneratu zuen solfeoa. Euskal kantak ez ezik, latinezkoak, eta gaztelarazko doinuak zituzten

aztergai. Harekin ikasi zuen musika klasikoarekin gozatzen, eta ikasitako hori herrietako festetan zabaltzen. Baina batez ere, gerora frankistek desterratuko zuten elizgizonak bultzatu zuen taldearen osotasunetik bere ahotsa bereiztera.

“Bakoitzak barnean gordetzen zuen sentitzen zuen hori. Inork ez zuen agertzen. Auzoan faxistak eta errege zaleak zeuden, baina ez ziren gaiztoak. Gu ordea, abertzaleak ginen”

Bilbon merkataritza ikasketak egin eta *San Anton* orfeoian kantatzen zuen artean, Atahualpa Yupanqui -k kontzertua eskaini zuen Buenos Aires Antzokian. Zur eta lur utzi zuen euskal odola zeraman indioaren erakustaldiak. Bete - be - tean hunkitu zuen haren kantatzeko manerak, haren ahots partikularrak, haren ahotik irtendako kritika sozialak.

Idirinen artista sena ikusita, amaren burutazioa izan zen kantu eta gitarra jotzearena. 1968ko maiatzean eskaini zuen aurreneko kontzertua Zeberioako Arkulanda auzoko festetan. Emanaldi haren ondotik etorri zen Yupanquiren omenezko lana: “Taulatik jaistean, Cinsa diskoetxeko gizon bat gerturatu eta disko bat grabatzeko eskaintza egin zidan. Baiezkoa eman, eta Arestirengana jo nuen lehenik erdarazko kantak euskaratzeko. Poeta batentzat bere poesiak kantatzea suerte handia zela esan zidan gaseosa eta ardo artean. Ondoren, Pablo Iztuetak beste biak itzuli zizkidan”.

“Taulatik jaistean, Cinsa diskoetxeko gizon bat gerturatu eta disko bat grabatzeko eskaintza egin zidan”

Xabier Villaverde gitarra jotzailearen laguntzarekin, taberna batean ondu zuen lau kantuz osatutako diskoa, eta Durangoko azokako arkupetan izan zen salgai. Urte horretan bertan Euskal Kantu Txapelketako bigarren saria jaso zuen Eibarren, Estitxurekin puntuz berdinduta egon ondotik.

Zentsura tarteko, negu gorria bizi izan zuen euskal kantak Francoren garaian. Sorkuntza aldetik aldiz, oparoa izan zen, garai hartan sortu baitziren hainbat eta hainbat talde. Haietako batzuk gaur gaurkoz

oihartzuna dutenak. Beste batzuk ordea, itzalean egotera kondenuatuak. Inork gutxi baitu Maite Idirin, Bittor Egurrola, *Beti Alai* taldea, eta *Zintzoak* bikoteak osatutako *Herriko* taldearen berri.

Thesean aske

Euskal Herrian barna, bakarka zein taldean hainbat plaza egindakoa, eta beste horrenbeste egiteke zituenean, Ipar Euskal Herrian erbestera behar izan zuen Idirinek. Zauritutako etakide bat lagundu izana leporatzen zioten: “Poliziak ezagun batzuen etxea hartu zuen. Mikelek alde egitea lortu, eta taxi gidariari eramateko eskatu zion. Gidariak ezetz esan, eta Mikelek tiro egin zion. Ni ez nengoen auzi horretan baina, nire atzetik etorri ziren”.

Espetxe zigorra saihesteko, auzoko andre baten etxean hartu zuen osatu hasierako egunetan. Ondoren, Ondarroara lekualdatu zen. Ezkutu zegoen sasoi hartan ez zion kantatzeari utzi. Kontrara. Han eta hemen dantzatu zuen ahotsa, simbolismoz beteriko ekitaldietan bane: “Benito Lertxundirekin kantu nuen Lovainako unibertsitatean, nederlanderan Flandriako hizkuntza ofizial aldarrikatu zuten egunean. Bestalde, ihesean joan aurretik, Legazpin izan nintzen itxura aldatuta. Mototsa moztu nuen, kolorea aldatu, eta ez ninduten harrapatu! Handik gutxira, Ugaora joan ziren nire bila, eta Bermeotik egin nuen ihes”.

Ezinezko helburuak

1968ko maiatzean unibertsitateko ikasleek Parisko karririk amorrutik bete zituzten, ekoizpen bideak, sexu ohiturak, familia, hierarkizazioa, eta Vietnameko gerra ezbaian jarrit. Gerora, langileak eskari propioekin batu zitzaizkien Charles de Gaulleren gobernuaren aurkako protestara. Frantziako hiriburuan sorturiko txinparta mundu osora zabalduta, eta manifestariek ezinezkoa zena lortu zuten azkenean; hezkuntzaren demokratizazioa, besteak beste.

Vincennes Saint - Denis, Frantziako zortzigarren unibertsitatea, izan zen printzipio hori bere egin zuen aurrenekoa. Hala, metodo parte hartzailea baliatuz, ikasleek eurek prestatzen zituzten euren gustuko gaiak irakasleen sermoiak entzun artean.

Ortziken, 1975. Argazkia: Eitb.eus



Itsasontzi batean zeramaten Euskal Herritik kanpora eta bazekien nora. Bermeoko portutik abiatu zen Baionara, Anton Ormaetxea kapitainaren *Carnaval* ontzian. Helmuga heldzerakoan, “Txoria sano eta salbu heldu da” esaldiarekin jaso zuen Idirinen sendiak haren berri.

Bizimodua erabat aldatu zitzaion. Hutsetik abiatu behar izan zuen zentsuraren garaiko kantariak. Ipar Euskal Herrian hainbat euskal ikasle eta iheslari ezagutu zituen, Eustakio Mendizabal Benito “*Txikia*”, beste batzuen artean. Olerkaria zen *Txikia*, ETAko fronte militarreko arduradun izateaz harago. Kantatzea borrokatzeko beste bide bat zela sinesten zen sasoiaren, *Egun xintak gaua dakar* poema idatzi, eta ugaotarrari bidali zion hark aireratu zezan.

Ipar Euskal Herriko giroa ezagutu ondotik, Parisera egin zuen alde frantsesa ikasteko grinak behartuta. Erromantze hizkuntza ikasteaz gain, soziologia ikasketak egin zituen Vincennes unibertsitatean, 68ko maiatzean ereindako uzta jaso eta bere egin zuelarik.

Bizkaitarra
kanta kantari.
Argazkia:
Eitb.eus



Maite 60ko hamarkadan.
Argazkia: Eitb.eus



Iribarretsu Idirin pianoaren alboan. Argazkia: Eitb.eus

Gauero, egunaren hondarrean, Miguel Arozena gipuzkoarraren *Candelaria* kafe antzokian ordu erdiko erakustaldia egiten zuen: “Euskaraz kantatzen nuen nik. Arozena hura ere kantaria zen. Italian izan zen kantua ikasten, baina ez zitzaion ondo atera eta Parisen egokitu zen. Bere ama egunero etortzen zen nire kontzertura, eta hizketan izaten ginen gero”.

Hego Euskal Herrian *Ez Dok Amairu* taldearen *Baga Biga Higa* ikuskizuna goia jotzen ari zela, Manex Pagolak *Ortiziken* kolektiboa sortu zuen Ipar Euskal Herrian. Sortu eta berehala ekin zioten emanaldiak eskaintzeari. Parisen, Britainian, Okzitanian eta Durangon izan ziren besteak beste. Asmo onak ibilbide laburra izan zuen ordea, bateko zein besteko kantarien borroka isila tarteko: “Pantxoa eta Peiok taldea utzi zuten, Lete eta horiekin kantatzera joateko. Horren ondorioz, ikuskizun denak bertan behera utzi behar izan genituen. Baina denetan txarrena *Ez Dok Amairuk* eurekin ezer egin ez zuela izan zen”.

Gutxitan aitortu badu ere, lehen pertsonan bizi eta sentitu zuen

hamahiru zenbakidun taldearen malefizioa: “Zuberoan kontzertua hasi baino lehenago, ez zuten nik bertan kantatzerik nahi. Eta antolatzaileek beste txoko batean jarri zidaten mikrofonoa”.

“Baina Maiteri bakarrik ez, Oskorriri eta Imanoli ere, ez zioten eurekin kantatzen uzten. Eurak ELAren inguruan mugitzen zirelako, eta eurek bezala pentsatzen ez zutenen aurka jotzen zutelako”, gaineratu du Jokin Apalategi Begiristainek, Maitek Idirinen senarrak.

Ortiziken taldea desegitean, Baionako kontserbatorioan musika klasikoko ikasketak egin, eta ahotsa lantzen hasi zen bizkaitarra. Ondotik, urrezko domina bi jaso zituen. Bata Lapurdiko hiriburuan bertan 1979an, eta bestea hiru urteren buruan, Bordelen.

Zabal, hamaika ikuspegiren ikur Lehen begi kolpean maiteminduzen Jokin Apalategirekin Parisko Euskal etxean elkarrekin topo egin zutenean. Urteak joan urteak etorri, soziologo eta idazle ataundarra egin zuen senar. Orduz geroztik, bera izan du bidaide.

Ur semea jaiotakoan Euskal Herriera bueltatu ziren, liburu artean bizitzeko asmotan. Haietatik atera zuten ikasgairik, baita jatekorik ere. Jaka anaiekin batera, 1973an ireki zuten *Zabal* liburu denda eta *Elkar* argitaletxea. Inguruko jendeak ez zuen proiektuan sinesten, aurrez irekitako liburu denda bi itxi egin behar izan zituztelako zabaldu eta gutxira.

**“Gu beti debalde aritu
garen bitartean,
Ez Dok Amairukoak beti
kobratzen! Oso
diskriminatuta sentitu izan
naiz”**

Hasieran, erakusketak egin eta liburuak saltzetik bizi ziren. Gerora, dendak martxa hartua zuenean diskoak besterik ez zituzten saltzen: “Sekulako arrakasta izan genuen, hamar bat lagun ezberdin pasatu izan dira gure dendatik. Jaka anaiak Donostiara *Elkar* gisa etortzean sortu ziren arazoak. Beste manera batean hasi ziren funtzionatzen, desadostasunak etorri ziren”. Idirinek ez zuen soldatapeko lanik egiten, ahal zuen guztietan gerturatzan zen laguntzeko aitzakian.



Idirin eta Apalategi Bidarten ezkondu berri.
Argazkia: Eitb.eus

Guztien denda zen zabal. Ideologia eta ezpal ezberdinetako idatziek lekua zuten eurenean, izan faxista, karlista, komunista, jeltzale, edo abertzale. “Mutil gazte bat etortzen zen, AEKn euskara ikasten zebilena. Sekulako esfortzua egiten zuen. Eta hara non Espainiako polizia zela enteratu ginela. Periodikoetan ere agertu zen bere izena!”, kontatzen du kantariak barre artean.

Kontuak kontu, bitxikeriak - bitxikeri, lau pareta haien artean dena ez zen jai izan. Liburu dendan eta bertatik kanpo izualdi bat edo beste bizi izan zutela aitortu du ataundarrak: “Hiruzpalau gauza larri gertatu zaizkigu. Zabaleko kontularia atxilo hartu zuten behin. Franco hil ondotik, bonba ikaragarria jarri zigun Batallon Vasco Españolek liburu dendan. Eta beste behin ere, gu kanpoan ginela, GAL-ek bonba bat jarri zidan kotxean. Beti egon gara kontrolatuta, telefonoak kontrolatuta izan ditugu, etxe aurrean salatari bat izan dugu ... ”.

Militantziaren gazi gozoak

Hamaika gose greba, protesta eta kantalditan izan dira giza eskubi-deen defentsan. Hamaika aldiz altxatu dute ahotsa bidegabekeriaren aurrean, ideologia abertzaleari tinko eutsiz, eta bestelako pentsaerak errespetatuz beti ere: “Carri-llorekin komitean zegoen adineko batekin eta Espainiako gazte ko-

munisten buruarekin afaltzen izan ginen Parisko ezagun komunista batzuen etxean. Gau hartan, Paco Ibañezekin kantatzeko eskaini zidaten. Sekulako proposamena zen, oso erakargarria. Baina, bereganatu nahi gintuzten, eta ez genuen onartu. ETAren inguruan mugitzen ginen gu, ez gaur egungo ETA-n. Garai hartan mugimendu soziokulturala zen, eta guk musikariok, kultura besterik ez genuen egiten”.

Ugaoko kantaria bereganatu ez, eta Imanol Larzabal eta Mikel Azurmendi erakarri zituzten komunistek. Donostiako Antigua auzoan jaiotako giza - semeen gainean kritikiko mintzo da Jokin Apalategi: “Eurentzat eroso zen, komunistek bazter guztietan kantatzeko aukera eman zitelako. Imanol gizon hautsia zen, ahula. Mikelek esandakoa egiten zuen, haren atzetik zebilen beti. Aspaldi hil zen Orihuelan (Alacant) bakar bakarrik. Mikelek ordea, PP-n bukatu zuen”.

Militantziaren gazi gozoak ezagutu zituen Idirinek. Publiko zehatz baten aurrean debalde aritu zen taula gainean, eta ez zitzaion errentagarri egin: “Ibai Rekondo eta biok militante aritu ginen urte askoan Herri Batasunaren inguruko jendearentzat kantatzen. Haien ordea, oso gaizki portatu dira gurekin. Gu beti debalde aritu garen bitartean, *Ez Dok Amairukoak* beti kobratzen! Oso diskriminatuta sentitu izan naiz. Beharbada horregatik ekin nion klasikoa kantatzeari, beste mundu bat ezagutzeko, beste publiko baten aurrean kantatzeko”.

Apurka - apurka musika sentitze-ko manera aldatu zuen, doinu herrikoiak sortzetik klasikora salto eginez. Bide horretan, Aita Donostia, Jesus Guridi, eta Jose La-

rrañagaren pareko artistak bizi-tuz, *Euskal Kamerata* sortu zuen beste hiru emakumerekin batera.

Musika ihesbide

Haurtzaroan halabeharrez isilarazi zituen gogoeten doinua biltzen dute haren kantuek. Askatasunaz mintzo da, feminismoaz, zapaldu-tako herriaren negarraz, herrimiaz... Garai bateko gudari, espetxe-ratu, erbesterratu, eta euren senide eta lagunak lekua dute Idirinen melodietan. Baina oren gainetik, euskarak eta euskararen herriak jasotzen du gorazarrerik handiena ondutako hamabost diskoetan.

Euskal kulturaren alde egindako ekarpenak saririk izan du. *Baiona Hiria Ohorezko saria* jaso zuen 2010ean Baionako Udala eta Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Lau urteren buruan, Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak: “Bizi izandako guztiak nire buruarekiko mesfidantza sortu dit, eta ez nuke nire lana maila horretan baloratuko. Plazer handia izan da, ez nuen saririk espero”.

Duela urtebete gastritisa antze-man ziotenetik taula gainean paratzeko gogoia isildu du, ahots kordak urratzearen beldur. Kantu teknikak behar bezala menderatzeak lagundu dio eztarria sano eta salbu mantentzen: “Kantatzerako orduan, ahotsa ondo proiektatzea funtsezkoa da. Horretarako, sai-hetsak tentuz puztu behar dira, eta sabeleko muskuluak indartu. Ahotsa izorratu ez dadin, aski da astean aldi batean edo bitan kantatzearekin”.

Plaza emakumea da Idirin, jende aurrean hazi egiten den horietakoa. Bestaldean dagoen entzulearen bellarria xarmatzea du maite. Izan kanta herrikoi, edo melodia klasiko zale, haren ahots ez-tia testu-guru bietara egokitu daiteke.

Joseba Erkiaga Arriaga Antzokia.
Argazkiak: Leire Elustondo



Fina oholtzaren alde bietan

“Itoiz” musika taldean flauta jotzen aritu zen Joseba Erkiaga Cilloniz. Arriaga antzokian erregidore hasi zenean ordea, jendaurreko lana egiteari utzi zion. Ordutik, oihalaren atzealdean dihardu, zuzendari ezberdinen aldamenean.

1960ko hamarkadan Lekeition jaio zen Joseba Erkiaga Cilloniz. Gaztetan, folk, pop eta rocka jorratzen zuen *Itoiz* musika taldean aritu zen. Berak ondu zuen “Lau teilatu” kanta mitikoaren flauta bakar saioa, eta harekin egin zen ezagun.

Soldaduskara joatearekin bat, kostaldeko taldetik urrundu, eta argiketari lanetan hasi zen. Arrakasta handirik izan ez, eta musikari heldu zion berriz ere, solfeo, pianoa, gitarra eta saxofoia menderatuz. Musikak eraman zuen *Irusta* berbena taldearekin plazarik plaza aritzera. Musikak eraman zuen Ruper Ordorikaren *Hautsi da Anphora* aurreneko diskoan parte hartzera.

Bilboko alde zaharrean zela, Arriaga antzokiko zuzendaria gerturatu zitzaion erregidore lana egin zezan eskainiz. Lana onartu eta berehala oholtza aurreko emanaldiak itzali zitzaizkion, agertokiaren bestaldeko kudeaketa lanen mesedetan. Ordutik, zuzendariak emandako jarraibideak betetzen direla kontrolatu behar du Erkiagak, ñabardura guztiak gogoan hartuz eta gogoraziz. Besteak beste, argi efektuak noiz jarri agintzen du, artisten sarrerak eta irteerak zuzentzen ditu, soinuaren kudeaketaz arduratzen da,

eta obrak bizirik dirauen artean, partituran urtzen ditu begiak. Horretaz gain, aulkia berotzen duen publikoari zuzentzen zaio obraren hasiera eta amaieran.

Barneko produkzioa denean gozatzen du gehien Erkiagak, prozesu guztia bertatik bertara bizi, eta bere ukitua erantsi diezaiokeelarik. Izan ere, froga hasten denetik, azken emanaldiko oihala jaitsi arte fin aritu behar du, adi, ziur. Kanpoko obra denean ordea, erregidore propioak dakartzate, eta dekorazioaren muntatzera mugatzen da.

Izen handiko pertsonak ezagutu ditu; Placido Domingo, Ainhoa Arteta, Maria Bayo, eta Luis Grima, besteak beste. Landu dituen diziplina artistiko guztien artean opera eta zarzuela ditu maiteen. Verdiren operak inarrostean du, bereziki *Rigoletto* eta *Traviata* operak. Eta oroitzapen gozoak dakartzkio Jesus Guridiren *El Caserío* zarzuelak.

Urteek aurrera egin ahala, musikaren sorkuntza alboratzen joan bada ere, oraindik gai da piano aurrean jarri eta melodiaren bat inprobisatzeko. Astia duen aldiro, “hil – kutxatik” ateratzen du zeharkako flauta alaba txikiari musika zaletasuna pizteko asmoz.

Errima askatuz

Dagoen ingurura moldatzeko trebezia du rapak, herritarren bozgorailu izan, eta kaleko arazoei hitza jartzen diolarik. Mugimendu honek arnasestuka egiten du aurrera Euskal Herrian. Baina haur besoetakoa izaki, freskotasuna eta gaztetasuna dario zirrikitu guztietatik.



Hogei urteko adin tartean baten dituen arren, musikak batzen ditu Norzzone (Donostia, 1974) eta Fani (Donostia, 1993). Donostiako Alde Zaharrean festa giroan zirela otu zitzairen *Nizuri-Tazuneri* taldea sortzea, emakume eta gizonen arteko elkar ulermena sustatzeko. “Jende arrunta gara arrunta ez den gauza bat egiten. Beraz, gure asmoa jende arruntaren ahotsa zabaltzea da. Rapak askotan sexua eta emakumeak ordezkatzeko dituzte, eta guretzat hori baino gehiago da”, azaldu du Norzzone (Unai Neira Aiestaran) rap kantariak.

“Infernu pertsonaletik” askatzeko heldu zion Norzzonek musikari duela hamarkada bat. Drogak kontsumitzen hasi eta hitzan

aurkitu zuen sendagaia: “Arazo pertsonala nuelako hasi nintzen Bartzelonan gaztelaraz rapeatzen. Terapia bat behar nuen, eta idazkeran aurkitu nuen. Denborarekin, terapia zena trebezia bihurtu zen. Osasuna ematen dit rapak, arnas guinea. Gertatzen dena gertatzen dela, berdin zait. Musikari esker egingo dut aurrera”. Donostiako rap abeslariak bi disko kaleratu ditu bakarka. *Amairu Dok* bata, *Ez Dok Amairu* kultur mugimendua omentzen duena. Eta *Maketa bizirik*, bigarrena.

Fani (Estefania Beneyto Lasa) emakume bakarrenetarikoa da taula gainean. Urte luzez gizonen atxikirik egon den munduan, iraultzailea: “Txikitatik erreboltaria izan naiz. Badakit bakarrenetarikoa

naizela, eta emakume gehiagok pauso hori ematea gustatuko litzaidake. Rapan bakarrik ez, esparru askotan. Gauzak asko aldatu diren arren, gehiago egin daiteke”.

“Rapak askotan sexua eta emakumeak ordezkatzeko dituzte, eta guretzat hori baino gehiago da”

NORZZONE
Rap abeslaria

Lagun batekin heldu zion rapari hamasei urte zituela. Hiru urtez elkarrekin kantatzen egon ondoren, bakarka jarraitu zuen bidea, kontzertu batean Norzzone ezagutu zuen arte. Harekin ondu du bere aurreneko lana eta harekin ondu nahiko luke etorkizuna.

Udaran Hernaniko San Juanetan eta Mutrikuko Karmenetan izango dira errimak askatzen. Ondoren, euskara munduko soinu ezberdinetan murgilduko dute; erritmo japoniar, arabiar, afrikar edo mexikarrekin ezkonduz. “Euskal Herritik kanpo euskara zabaltzea bilatzen dugu. Pentsatzen dugu musikak ez duela hizkuntzarik. Rapa ingelesez, euskaraz edo gazteleraz egin daitekeelako. Gustatuko litzaziguke jendeak ulertu ez arren, euskal rapa entzutea”, iritzi du Fanik.

121 Krew-ko taldekideak aldiz, grafitiak eginez murgildu ziren hip – hop kulturean. Denboraren joanean musikak aurrea hartu zion grafitiari. “Taldearen asmoa beti izan da gustuko genuen adierazpen artistikoa bozgorailu bezala erabiltzea. Barakaldon bizi gara, 80ko eta 90eko hamarkadak sozialki oso gogorak izan ziren, eta hori zen gure egunerokotasuna. Mundu hau ez da justua: dirua pertsonen gainetik jartzen da, ez dira kulturak errespetatzen, ez da emakumea errespetatzen... Artistak ez ezik, aktibistak ere bagara”, dio Maisha MC 121 Krew taldeko abeslariak.

“Graffiti bat egiterako orduan ez da oso inteligentea zure benetako izen abizenak idaztea. Horregatik ezizenak erabiltzen hasi ziren”

MAISHA MC

Sortzailea

Letra gizona da Maisha MC. Artistak ez ezik, sortzailea, rap abeslaria, musika ekoizlea, irrati kolaboratzailea eta zinemagilea. Haren baitan Eneko Axpe Iza (Barakaldo, 1986) bizi da. Maisha MC ez bezala, zenbaki - zalea da Axpe; fisikaria eta nanoteknologian doktore: “Hip hop-ean ia guztiok ezizen bat (edo gehiago) dugu. Graffiti bat



egiterako orduan ez da oso inteligentea zure benetako izen abizenak idaztea. Horregatik ezizenak erabiltzen hasi ziren. Nire kasuan, Maisha-k swahilieraz bizitza esan nahi du. Eta, MC, “Master of Ceremony”-tik dator, lehen rap abeslariak horrela deitzen ziotelako elkarri”.

Bide malkartsuan barrena

Hip – hop kulturaren lau oinetako bat da rapa, *turntablistan* (DJ edo musika jartzailea), break dance eta graffitiekin batera. 1980ko hamarkadan New Yorkeko komunitate afroamerikarra izan zen hitza zorroztu, eta errima aurkitzen lehena. Garai hartako rapeatzai-leak, herritarren kezak eta kaleari loturiko doinuak zituen hizpide. Herriaren arima zen, gizartearen ispilu.

Gurean, *Negu Gorriak* taldearen ahotsean entzun zitekeen euskarazko raparen aurreneko hatsa, Fermin Muguruzak rapeatzen zuelarik. Atzetik jarraitu zion *Selektah Kolektiboa* taldeak argitaratutako lehen diskoak. Bi urteren buruan, bigarren lana argitaratu zuen boskoteak: *Esperientzien etorbide-tik*. Hirugarren diskoa kaleratzeaz zutenean, Meta diskoetxea itxi, eta 2005ean desegin zen taldea.

“Euren kontzertuak parte - hartzaileak ziren, eszenografia ezberdin bat baliatzen zuten, bi abeslari zeuden, jendeari taula gainera igotzeko aukera ematen zioten ... Talde erreferentea izan zen! Hortik aurrera, ez da aurrerapenik egin”, gaineratu du soziologian lizentziaduna, telekomunikazioan ingeniaria eta Gizarte Komunikazioan doktore den Ion Andoni del Amok (Durango, 1974).

Gaur gaurkoz hamabost bat musika talde aritzen dira taula gainean euskaraz rapeatzen: *121 Krew*, *Indarrap*, *2zio*, *Goienetxe anaiak*, eta *Revolta Permanent*, besteak beste. Haietako askok, gazteleraz kantatzen hasi arren, euskaraz kantatzeari ekin zioten, euskaraz zegoen hutsunea betetzeko. Norzzonek esaterako, ez du rap politikoa egiten. Haren politika bilakatzen du euskara: “Rapa erreboltarien musika izanik, ez nuen ulertzen euskal raperoek gazteleraz kantatzea. Euskaraz rapa egin daiteke, eta gazteleraz egiten duten askok baino hobeto! Batek esan zidan erreferente bihur nintekeela gazteleraz jarraituz gero, eta euskaraz egiten dudan hori kaka hutsa iruditzen zitzaiola. Niri horrek bizia ematen dit, egiten dudan horretan sinesten dudalako”.

Euskarak zailtasunez aurrera egiten duen herrietan izan du rapak oihartzun handien, Barakaldon kasu. Bertan baitago mugimendua hedatuen. Ion Andoni Del Amoren hitzetan, rockak erreferentzialtasuna galdu duelako irabazi du sona euskal rapak bertan.

Del Amok azken hamabost urteotako euskal musikaren garapena aztertu du *Party & Borroka* doktorego tesian. Haren arabera identitateak sortzeko baino, elkarren arteko ulermena sustatzeko baliatzen da musika egun. Horregatik, *party and borroka* terminoa baino, *party* hitza erabiliko luke gaur egungo panorama deskribatzeko: “Duela hogeitau urte identitateak sortzen ziren musikaren inguruan. Subkulturen garaia zen. Baziren gauzak esateko eta musikak egiten zuen zubi lana. Musika lortzerako orduan, harremana funtsezkoa zen eta tabernak, txosnak zein disko dendak ziren harremanetarako leku. Gaur egun musika eskuragarriago dago, baina musika berbera entzuten da leku guztietan”.

Azken hatsaren beldur

Pixkana - pixkana esparru kontra - kulturaletan bere lekua egiten ari da euskal rapa, herri ezberdinetako jaietako programazioan sartzerai-



Ion Andoni del Amo Durangon.
Argazkia: Leire Elustondo.



no. Del Amo ikerlariari jakingura pizten dio raparen auziak, euskaraz kantatu arren eta aldarrikapen politikoak plazaratu arren, ez duelako garai bateko rockak beste oihartzunik izan: “*RRV (Euskal Rock Erradikala)* garaian sortutako mugimendua horren indartsua izan zen, hurrengo estiloak blokeatu zituela. Azken 25 urteotan musika bera entzuten eman dugu. Kasu askotan, musika bera talde berriek eginda. Beste batzuetan, garai hartako taldeen ahotsean. Euskal raparen bazterketa estetiko da, beste estetika musikala eta beste itxura bat erabiltzen dutelako. Bestela, *RRVren* eguneraketa izango litzateke”.

“Euskal raparen bazterketa estetiko da, beste estetika musikala eta beste itxura bat erabiltzen dutelako. Bestela, *RRVren* eguneraketa izango litzateke”

ION ANDONI DEL AMO
Ikerlaria

Maishak aldiz, adimenari eta komunikatzeko gaitasunari leporatzen dio rockaren arrakasta: “*Ez Dok Amairuko* taldekideak gu baino askoz ere inteligenteagoak eta komunikatzaile hobeak izan ziren. Horregatik ez dugu eurek beste oihartzunik izan, biak Ameriketatik etorri arren. Hala eta guztiz ere, mugimendua hazten ari da. Poliki-poliki, baina hazten. Esate baterako, Barakaldoko hamabost urteko gazte batzuek, *EH2000* euskarazko rap taldea sortu dute. Eta

Laize, hamabost urteko neska, euskaraz rapeatzen hasi da”.

Maisha MC-k bezala, Fanik eta Norzzonek ere ilusioz begiratzen diote etorkizunari. Baikor. Munduan barrena euren bizio biak, euren bi zioak zabaldu nahi litzuketela borobildu du Norzzonek: “Raparen etorkizuna beltza baldin bada, berdin zaigu. Gure bizitza ere beltza izan da eta hortik atera gara! Etorkizunean euskal etxetan barrena ibili nahi genuke rapa eta euskara zabaltzen. Zaila izango da, baina gogoia dugu!”.

Del Amok ordea, gailurrean kokatzen du rapa, erabat normalizaturik. Era berean, musika komertzialaren eragina nabarmentzen du, taberna giroan ez ezik, esparru kontra - kulturaletan ere: “Musika aldaketa hausnartu barik egin da. Gizartea aldatu delako, musikarekiko harremana aldatu delako, eta aldarrikapenerako bestelako bideak ustiatzen ari direlako. Horregatik, txosna gune eta gaztetxeek musika komertzialaren olatua jarraitu dute, baina horri esker egin dute aurrera”.

Durangarraren arabera, haizearen kontra joaten diren espazioak funtsezkoak dira musikaz, eta haren etorkizunaz gogoeta egiteko. Izan ere, txosna gune, taberna eta gaztetxeek bizirik dirauten artean, hausnarketaren atzetik etor liteke aldaketa, arrain handiak txikia irentsi ez dezan.

Txanponaren hiru aurpegiak jasotzen dira datozen lerroetan. Hitza du oinarri aurrenekoak. Hitza eta irudia ezkontzen ditu bigarrenak. Hirugarrenak aldiz, musikaz dihardu. Ezpal ezberdinetako aurpegiak izan arren, gai bera dago guztien ahoan: Lasa eta Zabala.

LITERATURA
Twist, Harkaitz Cano. 2011

Idea makabroen bila

Fitxa teknikoa

- Izenburua: Twist: izaki intermitenteak.
- Idazlea: Harkaitz Cano. (1975, Lasarte).
- Argitaletxea: Susa.
- Urtea: 2011ko abendua.
- Orrialde kopurua: 432 orrialde.



Orotariko literatur moldeak besarkatu dituen idazlea da Harkaitz Cano Jauregi. Eleberri, ipuin, itzulpen, poesia, kronika eta haur zein gazte literaturari lotua aurki daiteke bere izena. Euskadi literatura sari bi irabazi izan ditu. Bata 2005ean, *Belarraren ahoa* eleberriagatik, eta 2012an bestea, *Twist* maisulanaren ondorioz eskuratua.

Zortzi urte besterik ez zituen Canok Joxean Lasa eta Joxi Zabala torturatu eta erail zituztenean. Ikaragarri hunkitu zuen pasartea izan zen, bihotzean iltzaturiko irudi ahaztezina. Geroztik, gertakari hura hitzekin marrazteko premia sentitu du. Eta sentsazio hori baretu ere, *Twist* eleberria idazterakoan.

Xabier Soto eta Kepa Zeberio torturatu, akabatu, eta karez estali dituzte euren gorpuak. Gazte horien hilketak baldintzatuko du Diego Lazkano protagonistaren egunerokoa. Ezin izango da erru sentimendutik askatu, hark torturapean salatu baitzituen aspaldiko bi lagunak. Euren nortasuna bere egingo du orduan, haien ordez bitztea egokitu zaiola barneratuz.

Idatzi politikotik haratago doa beraz eleberria, laguntasunari eta denboraren joanari keinu eginez. Era berean, aho - bilorik gabe mintzatuko da torturaz, maite dena galtzeak eragindako sentipenaz, patuaz, zoriaz, eta sexuaz, besteak beste.

Irakurlea bete - betean harrapatzen du Canok hasierako paragrafoan. Hari nagusitik tiraka, istorio berriak sortuko dira ondoren. Hasi eta bukatu egingo dira batzuk, eta bere horretan, amaiera zehatzik gabe geratuko dira besteak. Baina guztiak egongo dira, estilo garbi bezain jasoan, neurtu bezain hunkigarrian landuak.

Zortzi atal autonomoz osatzen da istorioa, atzera-aurrerako eta aurrera - atzerako jauziez elikatua. Irakurlea ordea, ez da noraezean nekatuko, pasarteen errepikapenek freskatuko dute haren memoria.

Biribilak dira pertsonaiak, eleberrian aurrera egin ahala gorpuztuko direnak. Baina are biribilagoa da eleberria bera, literatura eta artea elkarrekin ezkon daitezkeela garbi erakusten duena. Chubby Checkerrek abestutako “*Let’s twist again*” kantatik hartzen du izena liburuak. Bestalde, *ready* edo *performance* mugimenduak, artista askoren izenak eta euren lanak nonahi irakur daitezke.

Horrenbesteko artelan eta artista izenen dantza guztien ginetik, zer pentsatua eman didan esaldia azpimarratu nahi nuke: “Ilunak gara baina ez gaitzala zahartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa”. Denok ondo baino hobeto dakiguna, baina inork gutxi praktikara eramaten duen ideia makabroa.

Lerro arteko irakurketa

Fitxa teknikoa

- Filmaren izenburua: Lasa eta Zabala.
 - Puntuazioa: ****
 - Zuzendaria: Pablo Malo.
- Aktoreak: Unax Ugalde, Aitor Mazo, Ricard Sales, Oriol Vila.
 - Gidoia: Joanes Urkixo.
 - Argazkia: Aitor Mantxola.
 - Musika: Pascal Gaigne.
 - Herrialdea: Euskal Herria.
 - Generoa: thrillerra.
 - Urtea: 2014
 - Iraupena: 107 minutu.

Hitzez ez ezik, irudiz eraman du Pablo Malo zinemagileak Euskal Herriko pasarterik ilunetarikoa bat film bateko fotogrametara. Joxean Lasa (Jon Anza) eta Joxi Zabala (Cristian Merchan) desagertu eta hamabi urtera, Bussoten (Alacant) aurkitu dituzte euren hezurak, ageriko tortura zantzuak dituztela. Justizia egarriaz, prozesu judizialari helduko dio Iñigo Iruin (Unax Ugalde) abokatuak, GAL-en aurreneko hilketaren iluntasunean argia eginez.

Hasierako minutuetan Jaime Otamendik Lasa eta Zabalaren arreba elkarriketatzen dituenean laburbiltzen da pelikularen muina, bakean bizitzearen garrantziaz mintzo baitira biak ala biak.



“Denok ados ez bagaude ere, norberak bere bidea jarrai dezala”, dio Pili Zabalak. “Hau ez dadila berriaz ere gertatu”, borobiltzen du Asun Lasak.

Iñigo Iruin (Unax Ugalde) abokatua da pelikularen izarra. Hari muturrak lotuz, berak gidatzen baitu hartzailearen begirada. Bigarren mailakoetan azpimarragarria da Oriol Vilaren antzezpena, soltura baitario Felipe Bayorena egiten.

Donostiako Zinemaldian lehiaketaz kanpo estreinatzen zen Maloren hirugarren film luzea, hilketa gertatu eta hiru hamarkada geroago. Ausarta bezain beharrezkoa den irudizko testigantza da. Lerro artean irakurtzeko gonbita, alderdi humanoak ikuspegi politikoa garaitu dezan.

MUSIKA

Lasa eta Zabala filmaren soinu - banda, Pascal Gaigne. 2014

Neurria ardatz, oreka helburu

Frantziako ipar – mendebaldeko Caen hirian sortu zen Pascal Gaigne, 1958an. Medikuntza ikasketak abiatu bazituen ere, musikak asetzen zuen gehien, Paueko unibertsitatean eta Tolosako Kontserbatorio Nazionalean trebatu zelarik.

Laurogei film luze, film labur eta dokumental baino gehiago jantzi ditu musikaz. Besteak beste, *El sol del membrillo* (1992), *Cuando vuelvas a mi lado* (1999), *El otro barrio* (2000), eta *Loreak* (2014). Hizpide dugun azken film honen soinu bandagatik 2015eko Goya sarietarako izendatu zuten merezimendu osoz.

Bizi bizi, energia handiko melodiarekin hasten da filma, torturaren gordina tentsioz jantziz. Istorio-

an barrena egin ahala, bigarren mailako melodiek izango dute parada, amaierako kredituetan hasierako doinu bera garatuko den arte.

Iluna da musika, filmaren argumentuaren neurria egina. Iluntasun hori lortzeko, haize eta hari musika tresnak baliatzen ditu zuzendariak. Era berean, garrantzi handia ematen dio perkusioari, kontakizun osoan presente dagoen hari musikala ondu duelarik.

Thriller generoak musika baldintzatzen duen arren, oreka bilatzen du Gaignek. Ez da gehiegizko dramatik ezta neurririk gabeko malenkonian erortzen. Tentuz baliatzen du melodia, kontakizunaren parte eta protagonista eginez.

Aitziber Garmendia Mendizabal · Antzezlea

“Begiratzen nautenean benetako emakume bat ikus dezaten nahi dut”

Errealitatearen zirrikitu guztietatik edaten du Aitziber Garmendia Mendizabalek (Zaldibia, 1982). Jakinminez erreparatzen dio inguruari. Adi izaten ditu begiak, erne belarriak. Hamahiru urterekin Beasaingo antzerki eskolan izena eman, eta ordutik ez du arnasa hartzeko tarterik izan. Asteazkenero ETB1eko “Zuek Hor!” saioan izaten da. Asteburuak aldiz, antzerkiari eskaintzen dizkio.



Aitziber Garmendia irribarretsu. Argazkia: Leire Elustondo

- **Gezurra esanda hasi al zinen Beasaingo antzerki taldean?**

Bai. Zaldibiako kultur etxeko arduradunak deitu zuen hamabost urte nituela esanez. Garai hartan hamahiru urte nituen, eta besteak baino txikiagoa nintzen gainera!

- **Egin dituzun antzezlanen artean zein nabarmenduko zenuke?**

Emakumeak izarapean. Bost belaunalditako emakumeek sexua nola bizi duten kontatzen da. Benetako bizipen horiek jasotzeko, Mireia Gabilondok eta Lurdes Bañuelosek 400 emakume elkarrizketatu zituzten. Oso obra borobila da, komediatik eta dramatik duena.

- **Telebista, antzerkia edo zinema aukeratzekotan, zein?**

Benetan bat aukeratu ahalko banu eta horrek bizitzeko lain emango balit, antzerkia aukeratuko nuke. Bizia ematen dit antzerkiak, magia.

- **Zein erregistrotan aritzen zara erosoan?**

Komedia berez ateratzen zait, baina gizonezkoentzat bideratuta dago. Emakumezkoa gizonezkoa zerbitzatzeko izaten da, eta ez nago bat ere ados horrekin. Beraiek bezala egin dezakegu komedia, eta beraiek bezala guk ere ganberro puntu hori izan dezakegu!

- **Iker Galartzarekin handik hona zabilza Ondoko hilibiko tipoa lanarekin. Zer nolako harrera du?**

Senar – emazteak ematen dugu, oso komediakoak gara biok eta hori aprobetxatzen jakin dugula uste dut. Iker Galartzak berak egin du euskarazko egokitzapena, eta euskarazko komediak asko irabazi dio gazteleraizkoari.

- **Zertan oinarritzen zara “La Jaio” eta Gorane pertsonaien gidoiak idazteko?**

“La Jaioren” berba egiteko era,

posatzeko era eta parrandarako lekuak nire ahizpa Aiorarengandik jaso ditut. Berari ez dio axola, eta niri pertsonaia bat sortzeko balio izan dit! Gorane eta Andoitzeko gidoiak idazterako orduan aldiz, umeak nola mugitzen diren, nola begiratzen duten erreparatzen dut.

- **Zerbait idazteko gogoa duzula irakurri dut. Zerbait hori aurreraterik bada?**

Antzerki komedia idazteko gogoa dut. Egunerokotasunean entzun daitezkeen elkarrizketa freskoetan oinarritua. Horrez gain, emakumeon historia kontatu nahi nuke, gure tokia aldarrikatu. Tokatzen zaigulako eta badelako garaia!

- **Zer moduz moldatu zara bizkaieraz Txarribodan (2015)?**

Gazteleraiz, edo batuan egitea baino gehiago kostatu zait bizkaieraz egitea. Erronka bat izan da. Euskarara arduraduna genuen eta harekin entseguak eginda moldatu nuen belarria.

- **Nola irudikatzen duzu zure burua zahartzaroen?**

50 urte ditudanean atera zaizkidan zimurrak erakutsi nahiko nituzke. Izan ere, begiratzen nautenean benetako emakume bat ikus dezaten nahi dut, zerbait kontatzen ari dena, sentimenduak dituen eta ez irudi hutsa. Borroka asko egin behar dudala badakit, bakarretakoa naizelako.